

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak eta Aiegiko Udalak Iratxeko Monasterioko elizan ekitaldiak ospatuko direla ziurtatu dute

*Sanchez de Muniain lehendakariordeak eta herriko alkateak horretarako lankidetzaz hitzarmena sinatu dute*

Jueves, 09 de agosto de 2012

Iratxeko Monasterioko Santa Maria elizan, Aiegin, ekintza erlijiosoak eta kultur ekintzak ospatuko direla bermatzeko, zeina, Foru Komunitatearen jabetzakoa den, bigarren lehendakariordeak eta Juan Luis Sanchez de Muniain Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak eta Luis Araiz, Aiegiko alkateak horiek ospatzea bermatuko duen lankidetzaz hitzarmena sinatu dute gaur goizean herrian. Testu horren sinadura pasa den uztailaren 25ean onartu zuen Nafarroako Gobernuak.



Aiegiko alkateak eta Sanchez de Muniain lehendakariordeak akordioa sinatu duten unea

Iratxeko Monasterioan gauzatzen diren ekitaldien programazioa gehituz joan da azken urteetan eta, egun, ospakizun erlijioso finkoak (igandetako meza, Veremundo donearen Eguna, Iratxeko Andre Mariaren Erromeria, Iratxeren Eguna, Aiegiko parrokiako lehenengo jaunartzeak) eta ospakizun pribatuak (ezkontzak, bataioak eta heriotzak) ere egiten dira; baita, kultur jarduerak ere, horien artean, hitzaldiak, kontzertuak eta antzerki formako bisitak, zeinak, batez ere, Aiegiko Udalak eta Iratxeko Monasterioko Lagunen Elkarteak sustatzen dituzten.

Foru-Administrazioak jarraituko du eraikinaren mantentze orokorraren eta bisita publikoaren kargu egiten, zeinak, orain arteko baldintza berdinetan jarraituko duen. Bestalde, hitzarmen honen sinadurarekin, Udalak bere gain hartuko du monasterioan programatutako ekintza erlijiosoen eta kultur ekintzen kudeaketa. Horrela, Udala arduratuko da bertako bizilagunek eta bisitariak eskatzen dituzten eta enklabe historiko hori mantentzen eta zabaltzen laguntzen duten hainbat zerbitzuz.

Horretarako, Aiegiko Udala arduratuko da monasterioa erabili nahi duten pertsonak eta erakundeak artatzeaz, ekintzak behar bezala gauzatzeaz arduratuko da eta ospakizun desberdinek eragindako mantentze-lan arruntez ere arduratuko da, ekintzak behar bezala

gauzatzeko eta tokia baldintza egokitan uzteko beharrezkoak diren baliabide materialak eta pertsonalak eskura edukiz.

Udalak monasteriora sartzeko giltza edukiko du eta haren zainketaz arduratuko da. Bertan gauzatuko diren jardueren berri hiru hilabeteko aurrerapenez eman beharko dio Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuari eta espazio horiek erabili nahi dituzten partikularrei eta erakundeei egoki irizitako tasak kobratu eta fidantzak eskatu ahal izango dizkie. Tasa horiek urtero argitaratuko dira Udalak horretarako erabili ohi dituen bitartekoez baliatuz. Hitzarmenak urtebeteko indarraldia izango du eta iraupen berdineko alditan automatikoki berrituz joango da; alabaina, hitzarmenaren gehienezko indarraldia bost urtekoa izango da.